

# ZUBIGILEAK

Egia osoaren jabe dela uste duenak ez du zubirik nahi. Ez du beste alderdira azaldu nahi. Han dena txarra, gezurra, gaiztakeria, azpikeria bait dago.

Mundu guztain ari dira elkartzten eta indartzen zubiaren beharrik ikusten ez duten integristak. Ezkerrekoaren txinpartak aztorazi ditu. Segaren muturrak ikutu duen liztor habiari gertatu zaiona gertatu zaie. Ez du giro izaten ustekabeen oker hori egin duen segalariak. Liztor guztiak arroturik jan beharrean inguruzten zaizkio. Denek egiten dute zula-zula beren mizto zorrotzez.

Europa aldean integristarik nabarmenetako bat Nantes-ko Georges apaiza dugu. Oraindik orain Erroman ibili da Aita Santuarekin izketatzeko asmoz. Aurpegiz aurpegi esan nahi zion Paulo seigarrenari "hereje" zela.

Ezagunak dira Alemaniako, Frantziako, Italiako, Portugalgo eta Espainiako integrista sonatuen izenak, lanak, aldizkariak, jokatibideak elkartek eta pentsaera. Familia batekoak bezain senide sentitzen dira beren artean. Ezpata zorrotz dira beren itzak. Eta asko ez dira itzetan bakarrik geratzen.

Demokratizatut ditugu euskaldunok geuren buruak. Are gehiago euskaltzaleok. Euskaltzalea berri zalea zen, ez zuen zegoen egoerarik onartzen, zer bait oheren amets ez obrokatu zen. Aurrerakoi eta aurrelari izan zen zenbaiti ez zaio ihuditzen integrista daitelenen ere. Baina denboraren erdiok jo ditu eta gaur eskuintean eta integrismoan kokatu dira haietako batzuk.

Euskal Errian ere euskaltzaleen integrismoa sortu da. Hauek bakarrik dira abertzale jatorrak, hauek bakarrik kristau jatorrak, hauek bakarrik egia osoaren jabe. Bat datoz mundu guztiko integristekin erlijiojokan, kristaukeran, politikakeran. Edonor larritzeko prest daude Aberriatgatik eta Jainkoagatik. Eta beren egia oso hori gordetzeko itz gogorrez eta ezpata zorrotzez armatu zaizkigu. Beren antzekoa ez den guztiari erasotzeko prest daude. Gudu-turuta jo dute.

Joera hau gizona bera bezain zaharra dugu gizartean. Edozein gaitan sortzen da. Artean bezala politikan. Eta erlijioan bezala literaturan. Beharrezkoa da gizartean joera hau, baina neurritsu, burutsu eta paketsu denean. Gizarteak ordura arte aurkitu dituen balioei eusteko beharrezkoa dugu.

Baina oso kaltegarria aurrerabide guztia ixten duenean Aurrerakoi eta ameslariak erretzen dituztenak. Burua eta neurria galdurik beste guztiak etsaitzat artzen dituztenak. Etsaitzat arturik denak garbitu beharrean asten denean.

Geuren buruak ondartzeko moduko eta adinako giro bihurrian sartu gara. Giro hau aldatzeko prest ez dagoenak ez du maite ez bere errikeri eta ez bere errikeridiki. Baina nola esan hau berriaren ertera beste inork baino gehiago maite dituela uste duenari? Nor kendu begietako lausoa?

Zubigileak behar ditugu hain mindurik eta bihurriturik gaudenon artean. Beste aldean ere badela onik, egirik eta jatorrasunik jabetu behar dugu. Inor ez da egia osoaren eta on berearen jabe. Zuria eta beltzaren artean bada beste kolorerik.

Zorionekoak zubigileak, batzuen eta besteen muturrekoak jasoko bait dituzte. Baina une hontan emateko prest daudenak baino jasotzeko prest dagoenaren premia gehiago du errikeri.

# LEVI STRAUSS GAILEN

Zail da munduan iragarle on izaten. Eta Levi Strauss-en, eta estrukturalismo guztiaren, hileta jotzeko beharra garaitu ez zutenak, ez dira iragarle hobe gertatu: «1968ko Maiatzak —esan zuten delako hiletari presatuko— betirako desegin du estrukturalismoa. Modaren fruitu zena, gainerako modak bezala berehala suntsituko da orain».

Althusser-en ahuleziak eta heterodotsiak berehala salatu zituzten ortodotsok; Chomsky-ren esanak berehala presentatu zituzten batzuek azken hitz modura; eta batzuen iritziz, Levi Strauss denon branka-edo denez, gauza bera: «kitto duk» entzuten zen bazterretan orain dela bizpahiru urte.

Ez nintzen ni orduan, eta are gutxiago gaur, batere irizti horretakoa. Gizonaren ezaguerari buruz, egiazen partezat daukat estrukturalismoa. Baina, jakina, gai hau kaseta-artikulu labor batez baino sakonkiago aztertu behar litzake; eta agian egingo du (berriro ere!) helako batez, liburu berri edo aldizkariaren batetan.

On izango da, halere, gaur hemen zer bait bederen gogoratzea. Ilara nabarmenean, hiru koroa hartu berriak ditu etnologillari famatuak udaberri honetan (nahiz hirugarrena, itxuraz, arantzazko koroa badirudi ere...).

Alde batetik «Erasmo Sari» garrantzitsua jaso du Holandan (piti bat Nobel-Sariaren kidea). Bestetik, ia harekin batera, Parisko «Académie Française» ospatsurako hautatua izan da. Eta, hirugarrenik (eta ez arrakastarik axalenekoa behar bada) «Esprit» hilabetekari ezagunak berriro ere, eta hiru edo laugarren aldiz gutxienez azkeneko hamar urteotan, bereziki aztertu du, baita gordinko eraso ere, Levi Strauss-en filosofo-ikarpena (ikus «Esprit», 1973-III, Domenach).

64 urtetan, hortaz, ikerturik, arakaturik, eta alde eta aurka solastaturik ikusten ditu «Tristes Tropiques»-en idazle jakintsuak bere burua eta bere izkiribuz eskergak.

Zeratik? Zertan datza bada Levi Strauss-en ekarpenaren muina? Zein da haren ideia nagusia?

Haren pentsamolde zabalari gaizkiolarik, hiru argi funtsezko somatu uste ditut nik Levi Strauss-en, eta hirurak gaurko euskal modako joeretatik arras urrun aurkitzen.

sa beharko dutenik. Ez du inolaz sinesten, ideien mailan, ideia batzuek besteak baino «aurrera» jotzen, eta hortaz, piskanaka, «fase» horretara denak geroenean helduko direnik.

Errelatibista da osotara, eta arrazakeria guztien etsai («Arraza eta Kondaira» liburuskara edo «Brasilgo genozidioen kontrako agiri ausartak irakurri besterik ez da behar»). Hizkuntzak desberdinak diren moduan (eta ez hau beste hori baino «aurrerratuago», eta abar) iruditzen zaizkio zibilizazioak eta kulturak desberdin eta pareko.



Kondairaren «aurrerenapen» oso oso errelatiboak eta zalantzaokoa iruditzen zaizkio; eta Kondairaren «sentidu» famatu hori, XX. mendeko mitologia huts.

Ez hori bakarrik: kulturen eta gizartearen arteko desberdintasunen ezaberaek edo galerak gizadi-dinamikaren beraren suntsiera ekarriko lukeela iruditzen zaio; eta eten gabe mintzo da berdinkeria guztien kontra: herrien bestetasuna behar du gizadiak, kulturen aniztasuna eta desberdintasuna atxiki behar dira: «il faut revenir à la complexité et à la diversité».

Hortik zer entzuten da, ordea? «Saludamos toda asimilación étnica y cultural no forzada como un paso al frente positivo en la marcha hacia una sociedad única y planetaria»...

TSEZKO BATASUN BAT. Mitoen batasun honek, beraz, ez du oinarria politikazko edo ekonomiazko EZINTASUNEAN (gizonaren INGURAMENDUAN, alegia), baina gizonaren PENISAKERAN BERTAN baizik (alegia, gizonaren ADIMENDUEGITURA GORDE ETA INKONTZIENTE-ETAN).

Politikaren mailakotzat jotzen diren alienazioak, hortaz, sakonagoak dira; eta frogak mila aldiz emanak ditu Kondairak. «La conception d'un entendement menant une ACTIVITE AUTONOME et asservie d'abord à elle-même se trouve à mes yeux confirmée par la découverte et le déchiffrement du code génétique, cette langue universelle qu'utilisent toutes les formes de vie, et où l'on peut voir le PROTOTYPE ABSOLU dont, à un autre niveau, le langage articulé répercute le MODELE auquel restent associés les noms de Troubetzkoi et de Jakobson» (Jean Pouillonek bildutako deklarazioak, Nouvelles Littéraires, 1971-X-1).

—oOo—

Levi Strauss, azkenekorik, biziki uzkur agertzen da —lehenengo puntuan adierazi dudanez— giza-diaren «aldakuntzei» dagokienez. Ez ditu gantzianduek berehala sinesten, eta sasi-iraultza asko somatzen du. Horretatik haren kontra zabaldua den «eliatista» deitura; alegia, anti-dialektiko eta gelditasunaren aldeko. Eta MODELOEN MAILAN hala da Levi Strauss.

Teorien atzean, dio, teoria horien ELKAR-OSAKETA ETA AURKARITZAK aztertu behar dira. Mitook suntsitu egiten dira Kondairan zehar, bai; baina mitoen arteko ES-HERANTZA ETA ULERKETAREN EGITURA GORDEA ez da batere aldatzen. Aurrerapenik ez dago kultura batetik bestera pasatzean; aurrerapenak BARNEKOEK EZ BESTEK sinesten dituzte. Brahma-Siva-Vishnu ahazturik ere HIRUKOTE HORREN EGITURA ez da aldatzen, Dumézilek erlijioen gonbarketan frogatua duenez.

Mitologiak eta sinestek SISTEMAK osatzen dituzte, sufioek eta osoinek SISTEMAK osatzen dituzten bezala. Gizonaren azken jokabidea eta azken egarria ulertzeko, argi handiago eman dezake Hizkuntzaren jakintzak, gainerako giza-jakintzek baino. Zeren-eta gizonaren kaka bere pentsakeraren EGITURA IKZUTUAK baitira, eta ez, benaka harturik, USTEZKO arrazoi-rak.

—oOo—

Ez da harrizkoa, beraz, Piaget, Freud eta Levi Strauss-en artean ideia-lotkia harrigarriak topatzea. Eta hiru jakintza-gizon aparta horien egokiera sakonak, Levi Strauss-en ekarpenaren BALIOA adierazten du, ene ustez, eta ez inolaz ere berorren iritzien hutsala.

On litzake, beraz, egiaeren bila ari diren euskaldun intelektual gazteek balio hiru kontutan hartzea; eta, ahal dutelarik, akademiko berriaren liburutik funtsezkoenak berderen (teknikoak ez badira ere) irakurtzea; hau da: «Race et Histoire», «Anthropologie Structurale» eta «La Pensée Sauvage».

Ez dut uste irakurria damutuko zaienik.

LARRESORO

## EGUN EGUNEKOA

Egunkariak sarri mintzatu ohi dira langille-oporetaz.

Gibelaldi honetan ez dira makalak izan, halajain!

Langilleria izan behar dela gure jokabideen helburua, jende gehienak onartzen duen gauza da. «Oberismo» hutsen erori gabe, jakifia.

Baifia, lan-opor horiekin, zer irabazi dute oraino gure langilleek?

Makiavelismo hutsen erori ez gaitzen, jakin dezagun «egitearekin» bakarrik ez goazela ifiora. Jakin ere jakin behar dugu nola, noiz eta non. Bestela, galdu besterik ez dugu egiten.

IMURURI

## ARGIA

Zuzenadaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxiok argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Barlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:  
Barruan 300 pezeta  
Korreo batasunetako erriertan 350 pezeta  
Atzerrietako beste erriertan 370 pezeta  
Aldez Aurrez galduta  
Salmetan (ale bakoitz) 7 pezeta

Irarkola:  
«Gráficas Navasas»  
A. Adoñin, 1 RUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963